

1.994KO ABENDUAREN 22KO BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamalauko abenduaren hogeitabian, gaueko bederlatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea eta Ramon Bengoetxea Altuna; Iñigo Arreseigor Bengoetxea Udalkidea ez da agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

UR KONTSORTZIOAN SARRERA ESKATZEA

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Ur Kontsortzioaren helburuak hauek dira: lehen mailako sareetan, ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura jarri eta ustiatzea eta behar diren zerbitzuak ematea, guzti hau baldintza egokietan eta indarrean dagoen arautegiaren arabera.

Nahiz eta gaur egun ur arazorik ez izan, horrek ez du esan nahi, inbertsio berririk egin behar ez denik, bai ur hornidura eta baita ere saneamendu sarean.

Kontsortzioan sartuta egoteak, inbertsio hoiek gauzatzeko laguntzak izatea suposatuko luke. Bestela Udalak bere gain hartu beharko lituzke inbertsioak.

Goian aipatutako inbertsioen finantzaketarako, Ur Kontsortzioak, kuoten banaketa bat egin du, momentuz lau urtetan bananduaz, eta Lizartzari honela tokatzen zaio:

1.995 Urtean

836.400,- Pezta

1.996 Urtean	1.115.200,- Pezta
1.997 Urtean	1.394.000,- Pezta

Ur Kontsortzioan gaur egun ez sartzeak ez du esanahi kuota hoiak ordaindu beharko ez ditugunik. Inbertsioak egiteko garaia iristen denean, denak batera ordaindu beharko genituzke.

Guzti hau dena kontutan hartuaz, Ur Kontsortzioan sarrera eskatzea proposatu du Alkateak.

Proposamena, aho batez onartu da.

UR ETA ZAKARREN TASAK

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Ur eta Zakarren Tasak onartu zirenetik, orain direla bost bat urte, ez da geroztik inolako errebisiorik egon, nahiz eta urtero, IPC.a igotzea erabakita egon.

1.995 urteko ur eta zakarren kostuek aztertuz gero, bi zerbitzu hauek oso defizitarioak direla konturatzen gara.

Hori dela eta, Ur eta Zakarren Tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

UR ERREZIBOAK

Etxeak

Minimoa 36 m³ Hiruhilabetea x 20 pezta/m³

36 m³tik gora pasatzen dena 30 pezta/m³

Tabernak, Dendak eta Industriak

Minimoa 45 m³ Hiruhilabetea x 30 Pezta/m³

45 m3tik gora pasatzen dena 40 Pezta/m3

Infraestruktura Kanona 787,- Pezta Hiruhilabetero

ZAKARRAK

Etxeak

Hiruhilabetea 1.000,- Pezta

Tabernak, Dendak eta Industriak

Hiruhilabetea 2.000,- Pezta

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Ur eta Zakarren zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu hoiak defizitarioak izaten jarraitzen dutelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

URAK 1.635.175,- Pezta

REKAUDAZIOA 1.400.180,- Pezta

DIFERENTZIA 234.995,- Pezta

ZAKARRAK 1.411.548,- Pezta

REKAUDAZIOA 800.000,- Pezta

DIFERENTZIA 611.548,- Pezta

GUZTIRA DIFERENTZIAK846.543,- Pezta

=====

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.
EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGAREN KUDEAKETARAKO

ESKUORDETZA HITZARMENA ONARTZEA

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugilearen Lehenengo Xedapen Iragankorrek Zerga 1.992ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatu beharra xedatzen du.

Apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugilearen 15. artikulua iharduera burutzen den udalerriko Udalari Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskatzailtza eta zergabilketarako eskumenak ematen dizkio, borondatezko epealdian nahiz premiamenduzko bidean. Dena den, aipatu Foru Dekretu Araugilearen Bigarren Xedapen Gehigarriak aukera ematen die Udalei eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergan Udalari dagozkion eskumenak kudeatzeak Udalaren esku ez dauden bitarteko tekniko batzuen beharra sortuko luke, edota udalaren esku egonda ere, Zergaren kudeaketaren neurrigabeko kostua sortaraziko luke; horregatik, Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamenari jarraituz, proposatzen da:

- 1.- Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugileak iharduera burutzen den udalerriko Udalari Zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskatzailtza eta zergabilketarako ematen dizkion eskumenak, erabaki honi erasten zaion hitzarmenean xedatzen denaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea, eta Udaleko Alkate-Lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.
- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari, egiaztagiri bidez, Erabakiaren berri ematea eta Udaleko Alkate-Lehendakariak sinaturiko hitzarmena, era bikoiztuan, bidaltzea.

Proposamena, aho batez onartu da.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUDEAKETARAKO
ESKUORDETZA HITZARMENA ONARTZEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko Lehenengo Xedapen Iragankorrek Zerga 1.990eko urtarrilaren 1etik aurrera eskatu behar dela xedatzen du.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko 19. artikulua zergapetutako ondasunak kokatzen diren udalerriko Udalari kudeaketa, likidazio, ikuskatzailatza eta zergabilketarako eskumenak ematen dizkio, borondatezko epealdian nahiz premiamenduzko bidean. Dena den, aipatu Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarriak aukera ematen die Udalei eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan Udalari dagozkion eskumenak kudeatzeak Udalaren esku ez dauden bitarteko tekniko batzuen beharra sortuko luke, edota Udalaren esku egonda ere, Zergaren kudeaketaren neurrigabeko kostua sortaraziko luke; horregatik, Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamenari jarraituz, proposatzen da:

- 1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauak zergapetutako ondasunak kokatzen diren udalerriko Udalari Zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskatzailatza eta zergabilketarako ematen dizkion eskumenak, erabaki honi erasten zaion hitzarmenean xedatzen denaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea, eta Udaleko Alkate-Lehendakariari hitzarmen sinatzeko ahalmena ematea.
- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari, egiaztagiri bidez, Erabakiaren berri ematea eta Udaleko Alkate-Lehendakariak sinaturiko hitzarmena, era bikoiztuan, bidaltzea.

Proposamena, aho batez onartu da.

FRONTOIAKO ERREGELAMENDUA

AZTINONDO UDAL PILOTALEKUKO INSTALAZIOEN ERABILERARAKO ARAUDIA

LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Lizartzako Udalaren titularitatepeko Aztinondo Pilotalekua eta bere instalazioak Udalak berak gestionatuak izango dira.

Gestio hauen helburua kirol bultzatzea eta praktikatzea eta heziketa fisikoa garatzea da, irabazbiderik gabeko erabilerak izango duelarik lehentasuna.

2. Artikulua

Erabiltzaileak instalazioak erabiltzerakoan izango dituzten eskubide, betebeharrak eta baldintzak arautzea da Araudi honen xedea. Beti ere, Kultura Fisiko eta kiroleko otsailaren 19ko 5/1988 legea, abuztuaren 27ko 2816/1982 Erret Dekretua eta gainontzeko xedapen aplikagarrietan xedatutakoaren arabera.

3. Artikulua

Instalazioak erabiltzeko eskubidea ikastetxeak, kirol elkarteak eta pertsona guztiek izango dute, lehentasuna kirol eskolarrak izango duelarik.

4. Artikulua

Lizartzako Udalak beretzat gordetzen du, Araudi honetan ezarritakoa argitu, aldatu edo garatzeko erabakiak hartzea, instalazioen erabilera egokia egin ahal izateko.

Araudi hau, jendearendako ordutegi, ikastaroen programak eta tarifak jendaurrean izango dira, instalazioen sarreran.

BIGARREN TITULUA

INSTALAZIOA ERABILTZEAGATIKO TARIFAK

5. Artikulua

Urtean indarrean izango diren tarifak, horretarako argitaratuko diren orrietan iragarriko dira, Udalak, aldaketaren bat erabaki dezakelarik:

Frontoia Argirik gabe	-----
Frontoia Argiarekin	500 Pezta/Orduko
Dutxak Erabiltzea	250 Pezta/Pertsonako
Gimnasioa	200 Pezta/Pertsonako/Orduko
Sauna	400 Pezta/Pertsonako/Orduko

6. Artikulua

Kirol instalazioen erreserba egiteak, kantxa erabiltzeagatik ezarritako tarifa eta, hala balegokio, argindarraren kontsumoa ordaintzea dakar.

7. Artikulua

Herri Eskolak, Kirol Elkarteak eta antolaturiko kirol taldeek sarrera doahin izango dute heziketa fisikoa, kirol eskolarra eta promozio kanpainak bultzatu ahal izateko, ezarritako araudiak bete beharko dituztelarik.

Hauek, pilotalekuko instalazioak erabiltzerakoan, lehenetasuna izango dute astelehenetik ostiralera, zabaltzen denetik.

8. Artikulua

Kirol instalazioak erabiltzeko asmoa dutenek bertako arduradunarengana jo beharko dute eskaera egitera. Instalazioa erabiltzeko ordutegiaren txandak hilabetero ezarriko dira, hilabete bakoitzean berri egin beharko direlarik.

Txandak hartzeko lehentasuna Lizartzan bizi direnak izango dute eta eskatzaileen kopurua orduen kopurua baino haundiago balitz, zozketa bidez erabiliko litzateke, aukeran aurreko hilabetean kirol instalazioak erabili ez dituztenek lehentasuna izango dutelarik, zozketan kanpo gelditzearren.

9. Artikulua

Libre geldituko liratekeen orduak, arduradunak banatuko ditu, eskaeren arabera.

Eskatzaileen kopurua orduen kopurua baino haundiagoa bada, ezin izango da txanda bat baino gehiago hartu.

Pilotalekuko Ordutegia

Goizeko 9etatik Gaueko 10etara

Saunakoa

Astelehenetik Ostiralera, 10etatik 22etara

Larunbatetan, Goizean 10etatik 13etara
Arratsaldean 15etatik 20etara

Gimnasiokoa

Astelehenetik Ostiralera, Goizean 10etatik 12etara
Arratsaldean 15etatik 21etara

Larunbatetan, Goizean 10etatik 13etara
Arratsaldean 4etatik 8etara

HIRUGARREN TITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

10. Artikulua

Erabiltzailea, kirol instalazioetan kirol ihardueraren bat burutzen duen edonor da.

11. Artikulua

Abonatua, aurrez instalazio eta bertako zerbitzuetarako txanda hartzen duena da, horretarako jartzen diren epealdietan.

12. Artikulua

Bai erabiltzaile eta baita abonatuak ere, kirol iharduerak dituen arriskuak onartzen ditu.

13. Artikulua

Erabiltzaileek eta abonatuak eskubide hauek izango dituzte:

- a) Araudi honek ezarritako baldintzen arabera instalazioak erabiltzea.
- b) Erreklamazioak egin ahal izateko instalazioetako arduradunarekin egotekoa.
- c) Honako Araudi honen ale bat eskuratzekoa.
- d) Araudi honetan xedatutakoa eta indarrean dagoen legeriak aitortutako beste edozein eskubide.

14. Artikulua

Eskatzaileek betebeharrak izango dituzte:

- a) Instalazioen erabilera, Araudi honetan xedatutakoaren arabera eta instalazioetako langileen oharrak kontuan hartuz egitea.
- b) Instalazioak eta bertako ekipamendua egoki erabiltzea. Arduragabekeria edo maltzurkeriagatik eragindako kalteak, egin dituenaren kontura izango dira.
- c) Funtzionamendu arazoak, apurtuak edo Araudi honetan xedatutakoa betetzen ez denean, instalazioetako arduradunari jakineraziko zaio.
- d) Indarrean dagoen legeriak aitortutako beste edozein betebeharrak eta Araudi honetan xedatutakoak.

LAUGARREN TITULUA

INSTALAZIOETARA SARTZEKO ARAUAK ETA ALDAGELEN ERABILERA

15. Artikulua

Instalazioetara sartzeko ondorengo arauak bete behar dira:

- a) Kirol Instalazio barruan ezin da erre.
- b) Jatea edo edatea debekatua dago kirol instalazio guztietan eta aldageletan, paperontziak eta ontzi higienikoak erabili behar direlarik paperak, txikleak, etabar botatzeko, baita norberaren gauza edo arropa botagarriak direnean ere.

BOSTGARREN TITULUA

KIROL GUNEEN ETA DAGOZKIEN JANTZIGELEN ERABILERARAKO ARAUAK

16. Artikulua

Instalazio bakoitza prestatuta dagoen kirola egiteko bakarrik erabiliko da. Beste eginkizun batetarako erabili behar izanez gero, Udalaren baimena beharko da.

17. Artikulua

Ordutegiak edo entrenamendu eta lehiaketa programak egiteko garaian honako lehentasun ordena izango da kontutan:

- Antolatutako Herriko Taldeak
- Antolatutako Kanpoko Taldeak

18. Artikulua

Kirol Instalazioen eta dagozkien jantzigelen erabilerarako arauak:

- Kirola praktikatzerakoan istripuak sortuko balira, Lizartzako Udala ez da egiten erantzule.
- Erantzunkizun Seguru Poliza egongo da.
- Kirolgunera sartzeko oinetako eta jantzi egokiak erabili beharko dira.
- Udalak, beretzat gordetzen du frontoia erabiltzeko eskubidea egokitzat jotzen dituen ekitaldiak ospatzeko, bai aginduz eta baita enkarguz antolatu daitezkeenak barne izanik.
- Frontoia erabili nahi duten pertsonak, erabili baino 20 egun lehenago Udalari eskaria aurkeztu beharko diote, nahi dituzten zioa eta gizarte

helburuak zehaztuz, baita iraupena ere. Eskaerak behar bezala sinaturik joan beharko du.

- Berbena edo Jaialdiak direnean, Batzorde antolatzaileak arduradun edo kantzainarekin eta kasu bakoitzerako Udalak izendatzen duen kidearekin bilduko da, haiek ospatzeko beharrezko materiala nola ezarri erabakitzeko, paretei, kantzari eta oro har, edifizioari kalterik ez egiteko, hurrengo eskarietarako izandako erabilera eta portaera kontutan hartuko direlarik.
- Jailadiaren antolatzaileek aldez aurretik, pezetatako kopurua gordailatuko dute fidanta moduan. Frontoia erabiltzeko baimena ematen den unetik, aldez aurretik Kirol Batzordeak emango duena, argi gastuengatik kopururik eskatu behar den ala ez erabakiko da, Jaialdiaren helburua nolakoa den ikusita (Ongitzakoa edo Irabazizkoa).

Frontoiain inongo kalterik jasango ez balu, Jaialdia ospatu eta hurrengo astean, Fidantza jaso ahal izango da. Kalterik egongo balitz, handik kenduko da edo ordainketa osagarria eskatuko da fidantzak kaltearen kosturako adina ez badu osatzen.

- Frontoia Kirol eta Kultura Ekitaldietarako erabiltzeagatik Lizartzako edozein erakundeak sortutako gastuak Udalako Kirol Batzordeak kualifikatuko ditu.
- Pilota partidu profesionalak jaialditzat hartuko dira.
- Baloi, pelota eta antzekoekin ezin da jolasik egin aldagela eta kantzara sartzeko pasabideetan.

Gimnasioko Arauak

- a) Aretoan erabiliko den oinetakoa, plaiara izango da; kaletik datorren oinetakoa derrigorrez aldatu beharra dago.
- b) Gimnasioaren erabilpena, ordu beteko iraupenera mugatuko da.

- d) Sarrerako giltza, frontoieko mantenimenduko arduradunari eskatuko zaio; ordu amaieran berari itzuliko zaiolarik.
- e) Gimnasio barrengo gertaerataz, giltza hartzen duen pertsona, erantzule edo responsable egingo da.
- f) Ordua erreserbatzeak, bakarrik, edo gehienez beste hiru lagunekin erabiltzeko eskubidea ematen du.

Saunako Arauak

- a) Sauna erabiltzeko, gutxienez ordu bete lehenago abisatu beharko zaio arduradunari
 - b) Kaleko erropa edo oinetakoekin Sauna barruan sartzea debekatua dago.
 - d) Guztiz debekatua gelditzen da, Saunako tenperaturan mandoak ikuitzea.
 - e) Saunan sartzeko beharrezkoa da dutxatzea.
 - f) Dutxa barruan legortzea behartzen da.
- Erabilera, talde antolatu, ikastetxe, kirol elkarte, entitate edo erabilera kontratatzen duten pertsona eta antolatutako ikastaroengana dago zuzendua, aurrikusitako programazio eta ordutegi baten barne.
 - Instalazioen erabilera desegokiagatik edo arduragabekeriagatik eragindako kalteak, erabilera izendatua duen ikastetxe, kirol elkarte, entitate edo pertsonak hartuko du bere gain; erantzunkizuna berea izango delarik, era berean, aurkako taldeek konpetizio partiduetan kalteak eragiten dituztenean.

SEIGARREN TITULUA

ERREGIMEN SANTZIONATZAILEA

19. Artikulua

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzea santzioa jartzeko arrazoia izango da.

20. Artikulua

Instalazioetan behar bezalako portaera ez duten pertsoneri oharterazi edo hala beharrez gero, bertatik botatzeko ahalmena izango du instalazioetako arduradunak.

21. Artikulua

Arau haustek honela santzionatuak izan daitezke:

- a) Oharteraziz.
- b) Erabiltzaile eskubidea denboraldi baterako kenduaz.
- c) Erabiltzaile eskubide behin betirako kenduaz.

Arau hauste horiek kontuan hartuko dira zirkunstantzia agrabante, atenuante edo salbuesleen arabera akzio judizialen kalterik gabe, Lizartzako Udalak arau hauste horietan erantzunkizun penal edo zibilak antzematen dituenean.

ZAZPIGARREN TITULUA AZKEN XEDAPENAK

22. Artikulua

Oharrak eta barru erabilerari dagozkion arauak kirol instalazioetako iragarki taulan jarriko dira.

23. Artikulua

Araudian azaltzen ez den kasuren bat gertatuz gero edo dudaren bat sortzen duen artikuluren bat balego Udalak izango du azken hitza, aurrez Kirol batzordearen txostena kontutan hartuko lukeelarik.

Aztinondo Udal Pilotalekuko Instalazioen Erabilerarako Araudia, aho batez onartu da.

MAHAI, AULKI ETA TABLADUAREN ERABILERARAKO ERREGELAMENDUA

UDALAREN JABETZAKO MAHAI, AULKI ETA TABLADUA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAREN EZARPENA

ERABILPENEKO ARAUAK

Eskaerak: Udaletxeko bulegoetan, kartaz, faxez, telefonoz edo pertsonalki egin ahal izango dira, beharreko gertatzen den aurrerapenarekin. Eskaerak kontaktoetarako telefono zenbaki bat edukiko dute.

Erantzunak: Telefonoz emango dira, erabilpeneko argibideekin.

Erabilpena: Udalak baimendutako epe barruan egingo da, Udalak hartu eta itzultzeko izendatutako egun eta orduak errespetatu beharko direlarik.

Garraioa, karga eta deskarga: Eramateak eta itzultzeak suposatzen duen garraioa, eskatzailearen kontura izango da, berdin karga eta deskarga.

Itzulpena: Mahai, Aulki eta Tabladuak itzultzean, Udal almatzenaren barnean utzi beharko dira, guztiz debekatua geratzen delarik kanpoan uztea, eskatzailearen arriskura. Kasu honetan Lizartzako Udala ez da kargu

egingo sila eta mahai horiekin gertatzen denarekin eta ondorengo atala aplikatuko du, mahai, aulki eta tabladuak galdu edo puskatu egin balira bezala.

PREZIO PUBLIKOAK

Baldintza Ekonomikoak: Silen edo mahaien erabilpena baimendu ondoren eta hauek jaso aurretik 20.000,- pezeta ordaindu beharko da fidantza moduan eta 15.000,- pezeta alkiler kontzeptuan. Silak eta mahaiak, biak batera eraman ezker, alkilerra 30.000,- pezetakoa izango da.

Tabladua edo kioskoaren alokatzeagatik aurrez jarri beharreko fidantza 20.000,- pezetakoa izango da eta alkilerra berriz 15.000,- pezetakoa.

Kalte Ordaina: Silak edo mahaiak galdu, harrapatu, lapurtu, puskatu edo antzekoren bat gertatuz gero, sila bakoitzeko 3.500,- pezeta eta mahai bakoitzeko 5.000,- ordaindu beharko zaio Lizartzako Udalari, ebaluaketa, honek egingo duelarik.

7 egunetik aurrera, eguneko 2.000,- pezeta kobratuko da.

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean eta egun horretan bertan hasiko da aplikatzen, aldatu edo bertan behera uzteko agindua izan arte indarrean iraunez.

Halaere, horrela deritzotenek Birjarpen errekurtsua tartera dezakete Ordenantza honen aurka Udal honetako Udalbatzarraren aurrean hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango den egunaren hurrengo lanegunetik hasita.

Udalaren jabetzako Mahai, Aulki eta Tabladuak erabiltzeko prezio publikoaren arauak, aho batez onartu dira.

AURREKONTUAREN ALDAKETA PUNTUALA

**TRANSFERENTZIA BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO
1. ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

- 1.- Horretarako formulatutako proposamenean zerrendatzen diren Gastuen aurrekontu-partiden artek otransferentzia bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, Udal honen Aurrekontuari dagokiona, Kapituluka ondoko laburpenaren arabera:

Transferitzen diren kredituak biltzen dituzten Gastuak (Bajak)

KAP.	IZENDAPENA	HASIERAKO	GUTXIPENA	EMAITZAZKO
	KREDITUA			KREDITUA
1	Pertsonala	21.932.017	1.324.343	23.256.360
2	Ondasun Arr	13.704.503	2.275.490	15.979.993
4	Transferent	5.054.590	736.603	5.791.193
9	Pasibo Fin.	17.601.257	164.302	17.765.559
GUZTIRA		40.691.110	4.500.738	45.191.848

=====

Gehitzen diren kredituak biltzen dituzten Gastuak (Altak)

1	Pertsonala	21.932.017	60.046	21.992.063
2	Ondasun Arr	13.704.503	2.291.313	15.995.816
3	Interesak	1.995.981	211.686	2.207.667
4	Transferentz	5.054.590	275.376	5.329.966
6	Inbertsio Er	25.685.652	1.871.152	27.556.804
GUZTIRA		66.376.762	4.709.573	71.086.335

=====

Sarrera Gehiago

1	Zerga Zuz.	7.944.989	1.200.580	9.145.569
3	Tasak eta b.	2.636.363	561.487	3.197.850
4	Transferentz	36.553.518	1.234.300	37.787.818
5	Ondare Sarr.	440.130	315.517	755.647
7	Kapital Tran	13.500.000	489.999	13.989.999

GUZTIRA 61.075.000 3.801.883 64.876.883

=====

SARRERA GEHIAGO 3.801.883

_____ 3.801.883

IRTEERA GUTXIAGO 4.500.738

IRTEERA GEHIAGO 4.709.573

DIFERENTZIA 208.835

ALDEKO DIFERENTZIA GUZTIRA 3.593.048

=====

- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onestea proposatzen den Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailtza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

Transferentzia bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako 1. Zk. Espedientea, aho batez onartu da.

TALLER OKUPAZIONALAK

Beste urteetan bezelaxe, Lanbide Hastapeneko 94. ikasturtea bideratu da, eta aurten herri hontatik ikasle batek eman du izena:

LEIRE LULUAGA ALTUNA

Aurrekontuari dagokionez berriz, Eusko Jaurlaritzak oraindik ere 1.994 ikasturteari dagokion laguntza jakinerazi ez duenez, ikasle bakoitzak, 200.000,- peztako kostua izango du.

Hori dela eta, proposatzen da:

Ikasle horren kostua Udalaren gain hartzea, eta aldi berean, izena eman duen ikasleari, erabaki honen berri ematea, ikasturtearen amaieran, Udalaren aurrean, asistentzi justifikatzailea aurkeztu beharko dutela jakineraziz.

Proposamena, aho batez onartu da.

ARRATOIEN ARAZOA

Herritar batzuk jakinerazi digutenez, arazo larriak sortu dira, arratoiak direla eta.

Hori dela eta, arratoi plagen kontrolpenerako profesional entpresak batzuei, arazoari aurre egiteko proposamenak eta aurrekontuak aurkezteko eskatu zitzairen.

Ondorioz, bi entpresak izan dira, aurrekontuak aurkeztu dituztenak:

IRATI, Urtean.....	237.800,- Pezta
LLANOS, Urtean	696.000,- Pezta

Proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, IRATI entpresak aurkeztutako aurrekontua onartzea, aho batez erabaki da.

EUSKAL FONDOARI ATXEKIPENA

Euskal Fondoak zazpi urte darama kooperazio deszentralizatua deritzan

alorrean lan egiten, hau da, talde komunitario, agintari lokal eta Erakunde Ez Gobernutarren iharduketa bateratuaren alorrean, horretarako garapen sostengarrirako proiektuen planifikazioan, betereztean eta ebaluaketan komunitate onuradunen partizipazio zuzenarekin kontaktzen duelarik.

Gure lana, komunitate eta base sozialeen agintean partehartuz, alor municipalak demokraziaren berreraiketa, handiagotze eta sakonketarako eskeintzen duen aukeretan oinarritzen da, baita Garapena, Demokrazia eta Giza Eskubideak benetan potentziaztearren bide alternatibo eta eraginkorrak aurkitzeko posibilitateetan ere.

Burutzen ditugun garapenaren aldeko kooperaziorako proiektuok komunitate edo elkarte jakin baten egungo eta etorkizuneko bizi baldintzak hobetzeko beharrezko baliabideak lortzea biltzen dute.

Garapenaren aldeko kooperazio deszentralizatua eta gobernuetatik edo nazioarte esparruko Erakunde Ez Gobernutar handietatik bultzatzen dena erabat ezberdinak dira, batez ere bere diseinua eta sorrera komunitate lokaleen iniziatiban datzalako, makrointeres politiko eta ekonomikoen indepentziaz.

Kooperazio deszentralizatuak komunitate arteko harreman zuzen eta pertsonala lortu behar du, garapen sostengarrirako modelo baten alde borrokatu, ingurugiroa errespetatuz, eta kooperazio zentzu bikoitzeko bide bezala ulertu, Iparra eta Hegoako komunitateei aldi berean mesede eginaz.

Euskal Fondoak kooperazio municipalistarako tresna izaten saiatzen da, era koordinatu eta eraginkor batetan kooperazio deszentralizaturako modelo bat sortu nahian, sakabanatze eta isolamendu lokalak gaindituz. Euskal Fondoak, izaera municipalerako erakundea, kooperaziorako beste hainbat sarekin koordinatuta dago, hala nola: Fons Catala, Fons Valencia, Fondo Balear, Fondo Andaluz. Era berean, Hiriak eta Garapena nazioarteko mugimenduko partaidea da eta Latinamerikako erakunde eta udalerriekin harreman sare zabal bat mantentzen du.

Gaur egun, Euskal Fondoaren sare municipalak Euskadiko 25 udalerrik

osaten dute, inplikazio maila ezberdinez, Patronatoko Juntako eta Bizkaia zein Gipuzkoako Aholkularitza Batzordeetako ordezkarien bidez Fundazioaren organoetan parte hartuz.

Hau dela eta LIZARTZako udalaren atxekimendua proposatzen dizugu.

Atxekitzeak haserako borondatezko aportazio bat suposatzen du, ejertzioero udal bakoitzak erabakitzen du kooperaziorako zenbat eta nora zuzendu, gestioa Euskal Fondoaren esku uzten duelarik.

Euskal Fondoak luzatu duen proposamena, aho batez onartu da.

TELEBISIOARI BURUZ INFORMAZIOA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

RETEBISIOENeko Zuzendaritzatik jakinerazi digutenez, onartuta dago, Lizartzako Errepetidorean, TELE 5 eta ANTENA 3 KATEAK jartzeko aurrekontua.

Plan horrek 2 urtetako epea du eta Lizartzako ekipamendu eta infraestruktura beharrak zein diren jakiteko, ikerketa teknikoak egiten ari direla, jakinerazi dute.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Izaera Pertsonala duten datuen tratamendu automatizatua

Izaera pertsonala duten datuen tratamendu automatizatua araupetzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren bigarren erabaki gehigarriak lege hori indarrean sartu aurretiko fitxategi automatizatuak araupetzen edo egokitzeko erabakia hartzera behartzen ditu herri-administrazioak.

Bestetik, abenduaren 22ko 20/1993 Errege-Dekretuak 6 hilabetez luzatu zuen erabaki gehigarri horretan ezarritako epea.

Udal honetan badira datu pertsonalak biltzen dituzten euskarri informatikodun datu-baseak. Beraz, lege organikoarekin eta berori garatzen duten arauekin bat etorriz, datu-base horiek araupetu eta erregistratu beharra dago.

Alkatetza honek, goian adierazitakoaren ondorioz, eta legez dagozkion ahalmenekin bat etorriz, honakoa

ERABAKI DU

- 1.- Izaera pertsonala duten datuak bildu eta prozesatzen dituzten Udal honetako fitxategi automatizatuak honako hauek dira eta erabaki hau osatzen duten eranskinetan deskribaturik daude:
 - a) I. Eranskina: Udal Biztanleen Errolda
 - b) II. Eranskina: Kontabilitateko Fitxategia
 - d) III. Eranskina: Errolda Fiskalak
- 2.- Eranskinean jasotako fitxategi automatizatuen gaineko erantzunkizuna aipatutako organoen titularrei dagokie; hori guztia fitxategiak kudeatu eta zaintzen dituzten administrazio-langileen zuzeneko erantzunkizunaren kalterik gabe.
- 3.- Udal honetako fitxategi automatizatueta erregistratutako datu pertsonalak (lehen atalean aipatutakoak), behar den moduan baimendutako langileek bakarrik erabiliko dituzte eta beren-beregi ohartarazitako helburuetako soilik.
- 4.- Eranskinean deskribatutako fitxategietako datu pertsonalek ukitutako pertsonak datu horiek ikusi, uzendu eta ezabatzeko eskubidea erabili ahal dute, dagokionean fitxategi automatizatu bakoitzerako fitxategian izendaturik agertzen den organoaren aurrean.

- 5.- Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da. Aurrekoa bete ondoren, fitxategi automatizatuen berri jakinarazi behar zaio Datuak Babesteko Agentziari, Datuak Babesteko Erregistro orokorrean inskriba ditzan. Jakinarazpena egiteko Agentziaren 1.994ko Ekainaren 22ko erabakiz onartutako eredu normalizatua erabili behar da.

A) I. ERANSKINA

Fitxategiaren Izena: BIZTANLEEN UDAL ERROLDA

- 1.- Arduraduna: Idazkari-Kontuhartzailea
- 2.- Helburua: Udalerriko Biztanleen Errolda eguneratua
- 3.- Erabilpena:
 - * Etxebizitza lortzen laguntzea
 - * Herri-Estadistika
 - * Errolda
 - * Barne-Estadistikak lortzea
 - * Auzibidetzeak
 - * Nazionalitatea
 - * Administrazio-Jardunbidea
 - * Laguntza ematea
 - * Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

- * Bigarren hezkuntza
 - * Unibertsitateko irakaskuntza
 - * Bekak eta irakasleentzako laguntzak
 - * Kirolak
- 4.- Ukitutako pertsona edo taldeak: Lizartzako Udalerrian erroldatutako pertsona guztiak.
 - 5.- Datuak biltzeko erabiltzeko bidea: Aitorpenak edo formulazioak.
 - 6.- Fitxategiaren egitura edo datu mota: Honako hauek erregistratzen dira:
 - * Norberaren identifikazio datuak eta helbideak.
 - * Izaera pertsonaleko datuak: Sexua, ezkon-egoera, jaioteguna eta jaioterria, familiaren datuak eta ama-hizkuntza.
 - * Ikasketa eta lanbide datuak.
 - * Gizarte-Inguruabarrei buruzko datuak: Etxebizitza.
 - 7.- Datuak lagatzea: Ez dago datuak lagatzeko asmorik.
 - 8.- Hala dagokionean, datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko nora jo behar den: Idazkari-Kontuhartzaitetzan.

B) II. ERANSKINA

Fitxategiaren Izena: Kontabilitateko Udal Errolda

- 1.- Arduraduna: Idazkari-Kontuhartzailea

- 2.- Helburua: Ekonomi eta finantza kudeaketa. Aurrekontuen Kontabilitatea.
- 3.- Erabilpena: Hornitzaileen kudeaketa.
- 4.- Datu pertsonalak jaso nahi zaizkien edo derrigorrez aurkeztu behar dituzten pertsona edo taldeak: Hornitzaileak; fakturak ordaintzeko eta jarraipena egiteko.
- 5.- Datuak biltzeko erabilitako bidea: aitopenak edo formularioak.
- 6.- Fitxategi automatizatuaren oinarritzko egitura eta bertan bildutako datu pertsonalen deskripzioa. Datu motak:
 - * Norberaren identifikazio-datuak eta helbidea.
 - * Salerosketei buruzko datuak.
- 7.- Datuak lagatzea: Ez dago datuak lagatzeko asmorik.
- 8.- Hala dagokionean, datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabiltzeko nora jo behar den: Idazkari-Kontuhartzaitzan.

D) III. ERANSKINA

Fitxategiaren Izena: Errolda Fiskala

- 1.- Arduraduna: Idazkari-Kontuhartzailea
- 2.- Helburua: Ekonomi eta finantza kudeaketa. Aurrekontuen Kontabilitatea.
- 3.- Erabilpena:
 - * Zergen eta diru-bilketaren kudeaketa

* Ondarearen kudeaketa

- 4.- Datu pertsonalak jaso nahi zaizkien edo derrigorrez aurkeztu behar dituzten pertsona edo taldeak: Udal honetako zergalariak.
- 5.- Datuak biltzeko erabilitako bidea: Aitorpenak edo formularioak.
- 6.- Fitxategi automatizatuaren oinarritzko egitura eta bertan bildutako datu pertsonalen deskripzioa. Datu motak:

* Norberaren identifikazio datuak.

- 7.- Datuak lagatzea: Ez dago datuak lagatzeko asmorik.
- 8.- Hala dagokionean, datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabiltzeko nora jo behar den: Idazkari-Kontuhartzaitetzan.

Muñoa Baserriaren gain Demanda

IKUSIRIK.- Gaur egun, herri ondasunen defentsarako, Muñoa Baserriaren jabetzakoak diren "ondazilegi" lurren erosle eta saltzaileen aurka, jarritako demanda.

IKUSIRIK.- Muñoa Baserriaren jabetzako "Azkondeita" izeneko lurra, permutatua izan dela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Permuta hori dela eta, jabe berri horren aurka demanda berria jarri behar dela.

Guzti horren arabera

ERABAKI DU:

- 1.- "Azkondeita" terrenoaren jabearen aurka, demanda berria jartzea.

- 2.- 1.993ko Urriaren 14ean egindako Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, Udalaren defentsa letratua, aurreko abokatu eta prokuradoreei ematea:

ABOKATUA: FELIPE GOMEZ ARRIARAN

PROKURADOREA: Tolosako CARMEN CHIMENO RODRIGUEZ

- 3.- Hurrengo Bilkura Nagusian, Udal Batzarrari, Ebazpen honen berri ematea, bere ratifikapenerako.

Bake Epaitegietako Idazkaritza Elkarteak

Bake Epaitegietako Idazkaritza Elkarteak sustatzeko, Epailaritzaren Demarkazio eta Plantari buruzko Legeak eta Uztailaren 13ko 206/1993 Dekretuak aztertuz gero

ERABAKI DU:

- 1.- Ibarra, Leaburu-Gaztelu, Belauntza, Berrobi, Elduaian, Berastegi, Lizartza eta Orexa herrien artean, Bake Epaitegietako Idazkaritza Elkarteak bultzatzea.
- 2.- Justizi Administraritzak, Elkarte horretarako izendatuko duen pertsonala, nahita ez, lana EUSKARAZ egiteko gai izan beharko du, Udal honetan onartua izatekotan.

U-1 Sektore Industrialak

IKUSIRIK.- Lizartzako U-1 Sektore Industrialeko Ordenazioaren Plan Partzialaren Agiriaren lehen onarpenean aurrikusten zen, Konpentsazio Sistemaren ordeztuz, behin-behineko onarpenean Kooperazio Sistema ezartzen dela eta, M^a Dolores Karrera Goñi Andreak aurkeztutako idatzia.

Idatzi horretan, interesatuak, Konpentsazio Sistemaren bidez planeamenduaren ejekuzioaren biabilitatea ikertzen den bitartean, aktuazio sistema aldaketaren prozedura geldiaraztea eskatzen du; era berean, gai horretaz hitzegiteko, Udaleko ordezkariekin bilera bat edukitzen bere interesa agertzen du.

Erredaktatzaile ekipoak luzatutako txostenean aurrikustean da, afektatuen interesak ez direla inolaz ere kaltetzen, Plan Partzialaren onarpenaren tramitazioarekin jarraitzen bada, kontutan hartuaz partikularrak proposatu lezaketen planeamendu berriaren onarpenak inolako konplejitaterik ez duenez, gaur egun dagoen hirigintz agiriaren behin-betiko onarpenaren ondoren erabakitzea dagoela.

Planteamendu berriaren proposamena, bilerak egin eta Konpentsazio Sistemaren bidez, ejekuzioa erabakitzeko egoki diren gestioak gainontzeko jabeen xedapenetara loturik gelditzen dira.

Aipatutako gestioak egiteko beharko litzaken denboraren kalterik gabe, eta zeinetan, Udalak, gainontzeko afektatuekin batera parte hartzeko bere disposizioa agertzen du, une honetan ez da bidezkoa ikusten, Plan Partzialaren onarpenaren prozedura geldiaraztea.

Guzti honengatik ERABAKI da:

- 1.- U-1 Sektoreko Ordenazioko Plan Partzialaren Agiriaren onarpena prozedura ez geldiaraztea, Agiri hoiek, bere behin-betiko onarpenerako, Gipuzkoako Foru Aldundiara bidaliaz.
- 2.- Lizartzako Udalaren disposizio guztia agertzea, Kooperazio Sistematik, Konpentsazio Sistemara aldatzeko, afektatuek egin lezaketen proposamenak aztertuz, behar diren bilerak egiteko.

Kanposanturako Nitxoak

1.994ko Urriaren 4ko eskeintza aztertu ondoren, Lizartzako Kanposanturako nitxoak enkargatzen dira, eskeintzan agertzen diren baldintzetan. Hau da:

54 PRECON tipoko nitxoak, nitxoko hiru unitate prefabrikatuak, 075 x 0,67 x 2,43 m. neurrikoak

Prezioa Unitateko Obran 23.000,- Pezta

Montatzea Unitateko 7.000,- Pezta

Hezurtokiak

1.994ko Azaroaren 14ko eskeintza aztertu ondoren, Lizartzako Knaposantuko hezurtokirako nitxo txikiak enkargatzen dira, eskeintzan agertzen diren baldintzetan. Hau da:

75 Hormigoizko nitxoak 40 x 40 x 80 zm. neurrikoak

Prezioa Unitateko Obran 5.300,- Pezta

Bartolome Eizagirre Jaunak eginiko Pinu Landaketa

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, ANDRESORO-ALDEA izeneko terrenoan, BARTOLOME EIZAGIRRE jaunak, berriro eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan (21. bis Art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Ikusiz, legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.990eko Ekainaren 20ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan bertan,

1.989 urtean landatutako pinuak ateratzeko agindua eman zela.

Kontutan hartuaz, agindua beteaz, landatutako pinuak atereak izan zirela, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioak eta Baso-Landaketa Muga Arauetan diosenari jaramonik egin gabe, BARTOLOME EIZAGIRRE jaunak, berriro pinua landatu duela.

Kontutan hartuaz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.992ko Apirilaren 22ko Alkatzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan landatutako pinuak ateratzeko, hamabost egunetako epea eman zitzaiola.

Kontutan hartuaz, pinuak ateratzeko agindua orain dela 2 urte eman zela eta gaur egundaino ez dela ezertxo ere egin,

ERABAKI DUT

Berriro hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua ateratzeko.

Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak, ateratzea, ejekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak, interesdunaren gain joango direlarik.

Obratako Baimenak

Felipe Arreseigor Lertxundi Jaunari, Ibai Gain etxearen fatxada pintatzeko baimena ematen zaio.

Sagrario Gogorza Andreari, Etxemaite, 2. sukaldean berrikuntza lanak egiteko baimena ematen zaio.

Arantxa Arrospide Andreari, Zubiaurre Etxea, behean, aire akondizionatuaren kaja jartzeko baimena ematen zaio.

Pakita Garaikoetxea Andreari, Kale Nagusia, 2.ko ikuiluko paretan udaldetan mugitutako harriak ondo jartzeko baimena ematen zaio.

Miguel Angel Lopez Jaunari, Isastegietatik Narbaitzura doan pistaren konponketarako todo uno botatzeko eta aurreneko errebuelta zabaltzeko baimena ematen zaio.

Zezipio Altuna Jaunari, Kale Nagusia, 33ko etxearen lau leiho berriak jartzeko baimena ematen zaio.

Lizartzako Artzai-Taldeari, Añi-ra joateko Ilarratsun dagoen zubian langa bat jartzeko baimena ematen zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamar t'erdia direnean.